

EROSKI-K 50 URTEEN OSPAKIZUNAK ABIATU DITU ELORRION DUEN EGOITZAN ZENTROKO LANGILEENTZAT

- Irailaren 25etik urriaren 16ra, EROSKIk jarduera sail bat gauzatuko du gertaera gogoangarri hori langileekin ospatzeko eta arlo guztiek ezagutza elkarrekin partekatzeko.
- Abiaturuko ekitaldian, EROSKIk ordezkariak eta Elorriko Udalak egoitzaren ildo historikoaren gaineko irudi bat desestali dute.

Elorrio, 2025eko irailaren 25a.– **EROSKI**k gaur abiatu du bere jarduera programa Elorriko langileentzat, herrian egoitza irekirik 50 urte bete direla ospatzeko. Lehen mugarri bezala, Elorriko Udala gonbidatu du instalazioetara egoitzaren ildo historikoaren gaineko irudi bat desestaltzeko. Bertan, berrogeita hamar urte honetako gertaerarik esanguratsuenak biltzen dira. Ekitaldian izan dira Rosa Carabel Kooperatibako CEOa, Beatriz Aparisi egoitzako gerentea, Irune Mateo Eroskiren Harreman Institutuzionalen arduraduna, Julene Lazkano Elorriko alkatea eta Maria Herrero udaleko alkateorde nagusia. Hitza hartu dutenean, azpimarratu da EROSKIk erroak herrian dituela, komunitatearekin konprometitzen dela, eta lurraldean balioak sustatzen dituela, hala nola kooperazioa, iraunkortasuna eta etorkizuna.

Irailaren 25etik urriaren 16ra, jarduera sail bat gauzatuko du Elorriko langileentzat. Helburua da mugarria ospatzea, lankideek esperientziak trukatzea, loturak indartzea eta lan ingurunearen eta lan arloetako funtzioen ezagutza handiagoa sortzea.

Gaurko ekitaldian, Eroskiren tamainako kooperatiba batek egoitza hemen izateak duen garrantzia azpimarratu du Julene Lazkano Elorriko alkateak eta nolako onurak dakatzan udalerrirako, bai enplegarritasun aldetik, bai ospe aldetik eta bai aberastasun aldetik.

Egoitzako arduradunak, berriz, Beatriz Aparisik, hauxe azpimarratu nahi izan du: *"Hau ez da bakarrik eraikin bat. Denona den etxea ere bada. Bertan, kooperatibak eta langileek era erresilientean eboluzionatu dute. Gaur, eskerrak eman nahi dizkiogu Elorriko Udalarri 50 urte honetan erakutsi duen hurbiltasunagatik eta jarrera onagatik. Zinez uste dugu bidaide ona izan dela eta ziur gaude elkarrekin hazten jarraituko dugula batera lan eginez, horrek onurak ekarriko baitizkio herritarrei eta eskualdeari".*

Rosa Carabel kooperatibako CEOak unea aprobetxatu du hitz hauek eskaintzeko bertaratuei: *"Egoitza hau EROSKIren historiaren lekuko izan da. Gune honetan bermatu ahal izan ditugu gure balioak. Gure herri eta hirietan presentzia duen erakundearen bihotza izan da, eta jendearekin eta eskualdearekin dugun konpromisoaren isla, erdigunean lankidetzat jartzen duen eredu baten bultzatzaile. Datozen 50 urteak Elorrioko Udalaren eta herritarren eskutik jarraitu nahi ditugu, etorkizuna aukeraz betea datorrela ikusirik, guztientzako iraunkorra izango den etorkizun baten bila".*

Elorrioko egoitzan, 1.300 langilek baino gehiagok jarduten dute honela banatuta: administrazio egoitzek, 14.000 metro koadro dituztenek, 900 langile hartzen dituzte, eta plataforma logistikoak, banaketaren sektoreko berrikuntza aplikatuan erreferente denak, 40.000 metro koadro ditu eta 420 lagunek lan egiten dute zerbitzu emanez 390 dendari freskoak ez diren elikagaiekin, drogeriarekin eta lurrindegiko produktuekin; horren ondorioz, 150.000 kutxa inguru mugitzen dituzte egunero.

Aipatzekoa da Eroski dela EAEn langile gehien dituen enpresa, 9.000 inguru, eta horietatik %81 langile bazkideak dira. Kooperatibak EAEko 367 hornitzaile komertzialekin jarduten du, eta horietatik %70 elikagai ekoizle txikiak dira. Horretaz gainera, EAEko Lehen Hezkuntzako ikastetxen erdiek Ohitura Osasungarrien Heziketa Programan parte hartu dute.

EROSKIri buruz

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan —Galiziatik Balearretara—, %12,7ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian; lidergoan da halaber Balearretan ere. 2024aren amaieran, 1.502 saltoki zituen bere sare komertzialean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita gasolindegia, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste negozio batzuk ere. Horretaz gainera, 6,4 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 27.600 lagunek baino gehiago osatzen dute langile taldea; horietatik 9.000, berriz, bazkide eta jabe dira.

**EROSKI – Komunikazio Korporatiboko
zuzendaria**

Patricia Martín Sanchidrián

Tel: 946 211 214 comunicacion@eroski.es

INCÓGNITO – Agencia de Prensa de EROSKI

Nora Garay/Nagore García de Vicuña

**Tel: 677 71 95 68
Tel: 630 98 66 19**